

<< Musika 3 >>

C: Carmen Rodríguez Suso

Área 2- Creación y Expresión Artística

2. Arloa: Sormen eta Espresio Artistikoa

(Euskarazko bertsioa)

Julio, 2003ko uztaila

KULTURAREN EUSKAL PLANA

MUSIKA

Carmen Rodríguez Suso

Txosten honetako material batzuk lehenago erabilitakoak dira, eta pasarte batzuetan testuan aipatzen ez diren beste egile batzuei jarraitu zaie.

Aurkibidea:

Sarrera	1
Laburpena	1
Atzera begirada	2
Gaur egungo egoera	3
Ezaugarri orokorrak.....	3
Herritarren parte-hartze handia.....	3
Balio sinbolikoa eragozpen gisa	3
Desoreka estrukturalak	4
Musika-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	5
Balorazioa	12
Jarduera-jarraibideak	13

SARRERA

Laburpena

Berrezarkuntzaren eta Primo de Riveraren diktaturaren arteko garaian finkatutako tradizioak euskaldunek musika-jarduerekin duten lotura azpimarratzen du. Geroago gertatutako hainbat gorabeherak, besteak beste, frankismo-garaiko musikarien asoziazionismo profesional indartsuak eta lana defendatzeko haien modu aitzindariak, irudi hori betikotu zuten euskaldunen eta estatuko herritarren begietan. Ildo berean gertatutako intentsitate handiko beste hainbat gertaeraren ondoren (frankismo berantiarrean folklorizatutako jarduerak eta kantautoreak, trantsizio-garaiko eta ondorengo urteetako euskal rock erradikala eta gaur egungo berrantolatze instituzionala), tradizio hori birdimentsionatu egin da eta eraginkortasun egokiagoa lortzeko arrazionalizazio handiagoa behar duen musika-bizitza atzematzen da. Eraginkortasun hori ezinbestekoa da musika-bizitza Euskal Autonomia Erkidegoko profil tertziario berriarekin harmonizatu nahi baldin bada.

Atzera begirada

Euskal herria musikaren herri gisa erakusten zuen tradizioaren garaian, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, agerikoa izan zen loraldi ekonomikoa, eta aldaketa demografiko positiboek hainbat aukera eskaini zituzten musika-bizitzaren kalitatea hobetzeko. Orduan eratu zen musika-merkatuaren oinarria, eta oinarri horretan musika-ekoizpenaren eta hedapenaren urrats guztiak ordezkatzeko ziren: sormena, interpretazioa, hainbat publiko eratzeko, informazioa eta kritika, argitalpena eta hedapena, irakaskuntza, etab.

Nazionalismo politikoaren jardura kulturek oso paper garrantzitsua eman zioten musikari, eta sentimendu positibo gehigarria sortu zuten herritarren artean. Herritarrek beren musikariekin bat egin zuten, euskal kulturako beste elementu bereizgarri batzuekin egin zuten bezalaxe.

Herritarrek harrera ona egin zioten musikaren gorakadari, bizi-kalitate hoberekin lotzen baitzen. Hala, XIX. mendearen amaierako hamarkadetan hasi zen garaia ez zetorren bat aurreko garaiekin, orduan musika – salbuespenak salbuespen– hala-moduzko ezaugarriekin garatu baitzen orokorrean.

Frankismoaren lehen urteen ostean, musikaren errealitate profesionala abiada handian pobretuz joan zen, eta musika-merkatua osatzen duten arlo osoak zaintzeari utzi zioten, bereziki, argitalpena, kritika eta hezkuntza. Konposizioak eta interpretazioak soilik eutsi zioten maila jakin bati, baina baliabiderik eta kondizio egokirik ez zegoenez, gizabanako azpimarragarriak galdu ziren uko egiteagatik (Remacha) edo emigratzeagatik (Bernaola). Herrian gelditu zirenen jarduerak minorizatu egin ziren, baliabide eta kondizio egokirik ez izateagatik (Escudero). Irakaskuntza erabat deskonektatu zen musikaren errealitate bititik, eta kritika ekoizpenaren eta hedapenaren arteko bitartekotza egokia lortzeko beharrezkoak diren parametroetatik urrundu zen.

Elektrizitatea 60ko hamarkadan hasi zen agertokietan sartzen, eta horrek hiri-ingurunekeo musikari profesionalak bi taldetan banatu zituen: batetik, elektrizitatea erabiltzen zutenak; sortzen ari zen publiko gaztearengana zuzenduz joan ziren, eta adineko pertsonak ere konkistatzea lortu zuten. Bestetik, elektrizitatea erabiltzen ez zutenak; merkatu-kuota galtzen joan ziren, eta musika "klasiko"ra mugatuta gelditu ziren. Ordua arte, musika herrikoia eta musika landua musikari beren esku egon ziren. Estilo anitzekoak ziren, eta musika gautzatzeko ere modu anitzak zituzten.

Aldi berean, migrazio-mugimenduen, zailtasun politikoaren eta etengabeko industrializazioaren ondorioz, landa-ingurunekeo musika, kondizio zailtan, hiltzen zihoan. Musika hori azken urteetan berreskuratu da berrikuntza-irizpideak aplikatuz, eta horrek irismen handiko musika-mugimenduetan sartzea eta haren alderdi batzuk babestea ahalbidetu du. Hala ere, ondare etnografikoaren ikuspuntutik, esan beharra dago baserrietan, herrietan eta

auzoetan erabilitako euskal musikaren legatuaren zati handi bat galdu egin dela.

Bitartean, euskal herriaren irudiak bere horretan jarraitzen zuen guztien oroimenean aparteko musika-herri gisa. Irudi hori errealitatea baino ahaltuagoa zen, eta antolakuntza berritzeko eta eguneratzeko unean, freno gisa aritu zen. Instituzioek jarduera batzuetarako diru-laguntzak emanaz eta haiek bultzatuz esku hartu zuten, baina aurrez ez zuten politika orokorrik zehaztu, ezta egoera osoa aztertu ere. Horrek, balio handiko ekitaldi zehatz batzuk egitea ahalbidetu zuen arren, sektorea egituratzea eta harmonizatzea saihesti zuen, ez baitzituen ahulguneak azpimarratu.

GAUR EGUNGO EGOERA

Ezaugarri orokorrak

1- Herritarren parte-hartze handia

Euskal Autonomia Erkidegoan musikaren kontsumo-maila oso altua dela erakusten dute adierazle guztiek, eta hori bat dator goian laburki azaldu den prozesuarekin. Kontsumo hori, ordea, arloen arabera kalifikatzea komeni da, desoreka garrantzitsuak erakuts baititzake.

Euskadiko kontsumo musikala ez da bertako produkziara bakarrik mugatzen, beste musika-mota batzuk ere sartzen dira, eta beraz, kontsumo hori ez da ezinbestean "euskal" musikaren edo musikarien hazte proportzionala soilik. Esku-hartze kulturalaren politikak prestatzean, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko diferentzia hori kontuan hartu behar da.

Musika-lanbideak bakarka hartzen baditugu, beste desberdintasun garrantzitsu bat detektatzen dugu. Interpretazio musikalak, adibidez, konposizioak baino lotura handiagoa du herriarekin, eta interpretatzaileek konpositoreek baino erreakzio biziagoak sortzen dituzte gaur egun.

Tokiko eta nazioarteko ekoizpenerantz zuzendutako musika-kontsumo horrek – interpretatzaileen irudian oinarritua batik bat– ez du lortzen musika-bizitzaren sostengu materiala ziurtatzeko behar den konpromiso-maila. Beste leku batzuetan bezala, herritarrak ez dira ohartzen musika (ondasun ikusezina eta ia ukiezina) produktu iragankorra dela. Musikaren kostuak kontsumitzaileak erregulartasunez beregain hartu behar ditu, kostu horiek ez baitira aldi batean soilik ordaintzen (liburu bat erostean bezala), baizik eta etengabe ordaintzen baitira (ekitaldi batera joaten den bakoitzean).

Zuzeneko musika-ekitaldiek oso onarpen ona izaten dute herritarren artean, eta parte-hartze kolektiboa nabarmena da: jaialdiak, koru-ekitaldiak, taldeen kontzertuak, etab. Horri bestelako elementuak gehitzen bazaizkio, kasurako dantza, musikak deialdia egiteko duen gaitasuna faktore garrantzitsua dela esan behar da.

2- Balio sinbolikoa eragozpen gisa

Musikagatik bereizten den herriaren irudiak Euskadiko musika-bizitzaren egoeraren azterketa arrazionala egitea oztopatzen du. Pertsonalitateak eta erakundeak goraiapatzeak eta iraganeko oroitzapen gutxi-asko handiek profesional batzuk birzikla daitezen eragotzi dute.

Bestalde, irudi hori indarrean egon zen garaiaren ostean sartutako musika-estiloak, gazteei zuzendutakoak esaterako, irudi hartatik kanpo geratu direnez, ez dira elementu kulturaltzat hartu, sarritan, herritarren babes handia izan arren.

Erantzun jendetsua duten musika-ekitaldiek alderdi sozialei ematen diete lehentasuna soinu-ekitaldi soilei baino gehiago. Horrek azaltzen du, adibidez,

zuzeneko kontzertuetara joanez edo koru batean parte hartuz (jende askorentzat hori gustukoa izan arren) emaitzek ez dutela bertaratutako publikoa gainditzen. Nazioarteko lehiaketetan eta erakusketetan euskal koruek (gure adibidearekin jarraitzeko) duten presentziak nahiko balantze eskasa erakusten du. Puntu horretan arreta handia jarri behar du kulturako administrazioak, izan ere, batetik, soziabilitate-formen bilakaerak gisa horretako jardueren balio sinbolikoa pixkanaka galtzea dakar, eta, bestetik, soinu-kalitatearen eskakizuna areagotu egiten da, entzuleek gaur egun kalitate hobea duten munduko edozein lekutako soinu-produktuak jaso baititzakete.

Azkenik, musikaren balio sinbolikoak soinu-emaitzekiko duen nagusitasunak musikari profesionalei ere eragiten die, hainbat amateurekin lehian jardun behar baitute, edo haien ubikuotasunaren aurrean ezin baitute profesionalizatu.

3- Desoreka estrukturalak

Azaldutako egoerak ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko desoreka eta banantzeak bereizten duen musika-bizitzaren eredia sendotu behar dela erakusten du. Musikaren praktika galtzen ari da etxe-giroan, eta kontserbatzen den praktika haurrek egiten dute, etorkizunean profesionalizatzeko aurreikuspenik gabe. Etxeetako hondar-praktika hori aisialdi kulturaltzat hartzen da besteak beste, eta hori ez da negatiboki interpretatu behar musika-merkatuaren etorkizuneko garapenaren prospektibentzat: orain dela gutxi egindako azterketek erakusten dute musika-jarduera eta musika-kontsumoa ez direla paraleloak.

Horrek esan nahi du haurtzaroan musika praktikatzek ez dakarrela ezinbestean etorkizunean kontzertuetara joateko grina edo disko-kopuru handiak erosteko gogoia. Aldiz, etorkizuneko helduen praktikarekiko gogoia dakar, baina atzerapen-fasean daude, musika-jarduera gero eta konplexuagoa baita, kostuak altuak baitira, soinu grabatuak konpetentzia handia baitu eta musika ontziratuen ubikuotasuna inpersonala baita.

Beraz, musikari praktikoak gaur egun gutxi direla eta beren jarduerak erronka handiei aurre egin behar diela jabetu behar dugu: produkzio industrialia, nazioarteko hedapena, teknologia garestia eta azkar zaharkitzen dena, etab. Arlo horietako batzuetan balantze positiboa lortzeko aukerak ez du ziurtatzen musikaren mundua behar bezala ibiliko denik; izan ere, materia ukiezin baten gainean (soinua) egindako jarduera bizia denez, bere elementu guztiek oso lotura estua baitute elkarren artean, eta ondorioz, bata bestearekiko mendekotasuna dute.

Hori dela eta, beharrezkoa da aurrerago aipatzen ditugun musika-baliabide eta -eragile guztietan arreta jartzea, baita horien artean sortzen diren desoreketan ere.

MUSIKA-BALIABIDEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Aipatutako egoerarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko musika-baliabideen ezaugarria desoreka da: alderdi batzuetan oso aberatsak dira, eta beste batzuetan oso defizitarioak. Horrek sektorea desegituratzea dakar, oso balorazio positiboko gertaera gogoangarri batzuk aurkezteko aukera ere ematen duen arren. Horrek guztiak Administrazioaren esku-hartzea eskatzen du, defizitario gisa detektatutako sektoreak arrazionalizatzeko, musika-bizitzako baliabide eta sektore guztiek behar bezala funtziona dezaten oreka egokia lortzeko helburuarekin.

Ondoren, gure ustez garrantzitsuenak diren musika-baliabideak aipatu eta azaletik baloratuko ditugu:

- Musikaren Euskal Artxiboa dokumentazio-zentroa (ERESBIL, Errenterian). 1974an sortu zen, eta erakunde publikoek eta pribatuek osatutako patronatu misto baten mendekoa da. Bere funtzioa erreferentziatzeko musika-informazioa lortzea da, eta informazio hori erabat publikoa da. Bere bokazioa musikari buruzko informazioa eskaintzea denez (partiturak, ikus-entzunezko erregistroak, liburuak, programak, kartelak eta musikarekin lotutako beste material batzuk), bere funtsak ez dira beti jatorrizkoak: material horiez gain, batzuetan, erreproduzioak edukitzen ditu eta beste batzuetan, jatorrizkoei buruzko informazioa. Bertako lantaldea ez da nahikoa dauden beharrei erantzuteko, baina oso errendimendu altua du, eta kalitatea ona denez, erreferentzia gisa erabiltzen da Estatuko antzeko beste zentro batzuetan.
- Musika-ondare hedatua eta askotariko kontserbazio-egoeratan dagoena: adibidez, ez dago instrumentuak, oroitzenak eta musika-objektuak kontserbatzeaz eta hedatzeaz arduratzen den musikaren museorik, ezta haiek kudeatzeko langile prestaturik ere. Liburutegi orokorretan ere ez dago musikaren atal onik, eta kontserbatorioetan lekua eta langileen profesionalizatzea ez dira nahikoak. Musika-ondarearen zati handi bat esku pribatuetan dago. Bestalde, administrazio-esparruan behar bezala kokatzeko zailtasun nagusia legezko esparrua da, ez baita egokia musika-ondarearen definizioa eta errealitateak biltzeko.

Musika-ondare historikoari dagokionez, esan beharra dago konparazio-irizpideak erabiliz baloratzen badugu, ez dela inguruko eremuetakoa baino hobea. Tradizioz, apartekotzat hartu izan da, EAEn inguruko beste leku batzuetan baino lehenago hasi baitzen ikerketa historikoa. Baina gaur egun ikerketan izandako atzerapenen eta beste leku batzuetan izan diren aurrerapenen ondorioz ondare-mota honen balorazioa behetik egin behar izan da.

Horren adibide XVII. eta XVIII. mendeetako euskal organoak ("barrokoak") dira. Horien kalitateak eta kantitateak ez du beste eremu

batzuetakoa gainditzen ez kopuruari, ez tamainari, ezta sonoritateari dagokionez ere (horrek ordea ez dio meriturik kentzen gertaera historikoari, alegia, euskal organo-egileak izan zirela modelo "barrokoa" diseinatu zutenak, gero beste lurralde batzuetara hedatu zena). Hori dela eta, ahalegin handia egin dute gotzaindegiek eta diputazioek alerik nabarmenenak berritzeko, eta gaur egun publikoa erakartzeko moduan daude. Horiek baino geroagoko organoak, paradoxikoki, kontserbazio-egoera okerragoan daude, nahiz eta balio handia izan.

- Bi orkestra sinfoniko profesional egonkor: Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS), 1922an sortua, eta gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak osatutako patronatu baten mendekoa dena, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS), 1982an sortua, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren mendean dagoena. Biek antzeko aurrekontua dute eta antzeko egitura-arazoak dituzte, baina arlo desberdinetan: kudeaketa- eta administrazio-mailetan profesionaltasun falta, eta bulegotarako behar adina langile ez izatea. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren lurraldekotasunak disfuntzio batzuk sortzen ditu bere funtzionamenduan, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa sail horren laguntzaren falta du, zerbitzu eta ondare sozial handia eskaintzen dituen arren.
- Hainbat ganbera-elkarte. Orkestrek ez bezala, ez dituzte denboraldi finkoak eskaintzen, baizik eta kontzertu puntualak. Hori dela eta, bere lan-taldeak aldakorrak dira, eta kalitatea ere bai, publikoaren leialtasuna bezalaxe. Musika-mota hori gauzatzeko zailtasunak elkarte horien jarraipenari eragiten dio, nahiz eta babes handiagoa izan behar luketen, prestakuntza-eta kultura-balioa kontuan izanda.
- Kalitate eta ospe handiko musika klasikoko bakarlariak, karrera herrialdetik kanpo egin dutenak eta beren adinagatik agertokiak uzteko zorian daudenak. Besteak beste, Joakin Atxukarro, Felix Ayo eta jadanik hilda dagoen Nicanor Zabaleta. Musika-jarduera horri jarraipena ematen dien gazte bakarlariak ere badaude, baina musika-bizimoduaren nazioartekotasunaren ondorioz, horiek ere herrialdetik kanpo egiten dute karrera.
- Kalitate handiko gazte musikari klasikoak. Merkatuaren saturazioa eta nazioartekotasuna dela eta, beren lana kanpoan edo irakaskuntzan egitera mugatuta daudela dirudi. Irakaskuntzan aritzen dira, eta hori gaitz txikiagotzat hartzen da, eta hezkuntza-sistemaren erronkei aurre egiteko prestakuntza espezifikorik gabe gauzatzen da. Baina horrek kalte egiten dio hezkuntza-sistemari, eta arazotzat hartu behar da.

Hezkuntza Sailaren ahaleginak, beti esplizituak eta koherenteak izan ez arren, orain arte egon den banaketa txarra orekatzen hastea ahalbidetu du: piano-jole gehiegi zeuden (horietako asko amateurrak), eta orkestrako musikariak falta ziren. Gainera, gehienak erreperitorio klasikoan trebatzen ziren, eta ez zuten baliabiderik beste erreperitorio batzuk beregain hartzeko. Gaur egun, hari- eta haize-instrumentuen jotzaile-kopurua gorantz doa kantitateari eta kalitateari dagokienez, hainbat hamarkatako gabeziaren ostean. Organo-joleak uzte-egoeran daude, eliz pastoraltzaren ondorioz (instrumentua ez baitu jadanik tresna liturgikotzat hartzen) eta behar adina kontzertu-instrumentu ez egotearen ondorioz. Ia abeslari gehienak koru amateurretan sortzen dira batik bat, eta ez kontserbatorioetan (Ainhoa Arteta).

LOGSE ezartzeak eta musika-eskolen garapenak musika-estilo bakarrean oinarritzen ez diren musikari trebatuak prestatzeko aukera ematen du, baita horiek musika-jarduera praktikatzeko erabiltzen dituzten erreperitorioak egungo gizartearen eskaeretara egokitzekoa ere. Hala ere, prozesu hori oso motela da eta disfuntzioak ditu, esaterako musika-eskolek jasaten duten zigor finantzarioa kontserbatorioekin konparatuz, herritarren aldetik harrera hobea jasotzen duten zerbitzuak eskaintzen dituzten arren. Eskolak garatzen diren legezko esparruak ikasleei zuzendutako eskola-orduak zigortzen ditu, horietako askorentzat musika-prestakuntza jasotzeko bide bakarra izan arren. Udalaren mendekoa denez, beharrezkoa da malabarismo administratiboak egitea, eskaintza zabala eduki ahal izateko.

- Landako instrumentuak jotzen dituzten gazte musikariak, oso maila onekoak, baina gizartean kokatzeko zailtasuna dutenak, musikari horrekin lotuta zeuden elementu tradizionaletan parte ez izateagatik: aldi bereko lana baserrian edo eskuzko lanbideetan, erreperitorio mugatua eta funtzionala, nekazaritzako egutegi eta bizi-zikloarekiko lotura, konexio-falta giza ingurunearekin eta irakaskuntzako tradizio landatarra. Horietako gehienak irakaskuntza akademikorantz zuzentzen dira, kasu honetan ere gaitz txikiago gisa, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen gaikuntzen bidez.

Instrumentu horien jarduera profesionalean aritzen direnak egoera berri baten aurrean daude: beren prestakuntza egokiek (ikasketa neketsuaren, zailaren eta ia autodidaktaren emaitza) ez dute irteerarik ez landa-ingurunean (ezin baitute hortik bizi, eta jadanik ez baitute musika-mota hori soilik entzuten), ezta hirigunean ere (beste musika-mota bat kontsumitzen baitute). Hala, instrumentu horiek inoiz baino hobeto jotzen dituzte eta inoiz baino musikari gehiago dituzte, baina horientzat ez dago behar adinako harrerarik.

Beste batzuek beren erreperitorioa eta jarduteko moduak berritu dituzte, hiriko edo nazioz haraindiko musika herrikoiarekin lotuz. Alor horretako musikari bikainek beren artea eta sonoritatea beste talde batzuetan sartzen jakin dute (musika zelta, irlandarra, *world musics*), baina ez dute nazioarteko baliabideetan aurkez daitekeen soinu propiorik sortu, garrantzi gutxiko salbuespenen bat kenduta.

- Erreperitorio gazteari zuzendutako musikari gazteak, horietako asko autodidaktak, baina prestakuntza dutenak, hain zuzen, musika-mota hori hezkuntza-erakundeetan instituzionalizatu den lekuetan jasotako prestakuntzarekin. Sortzen ari den sektorea da, garapen-aukera handiak eta eskaera dezente dituenena. Dena den, horien kokapen profesionala lehendik instalatuta dauden amateurrekin ezartzen den elkarrizketaren arabera izango da. Musikari horien adinak gaztaroa gaintzen duenean beren bizitza profesionalak nola jarraituko duen inork ez daki.
- Koru ugari, gehienak ez-profesionalak. Horien garrantzia tokiko komunitateetan funtzio sozializatzailea betetzea da, soinu-emaitzak lortzea baino. Egoera horretan koro batzuk nabarmentzen dira, bereziki, Orfeoi Donostiarra eta Bilboko Koru Elkartearen korua. Hala ere, koro ez-profesionalak izaten jarraitzen dute (mundu osoan gertatzen den bezala).
- Behera doan musika-banden kopurua. Gehienek zailtasun handiak dituzte, musika grabatuarekin eta musika herrikoia egungo beste forma batzuekin lehian aritu behar baitute. Dena den, horietako batzuetan berreskuratze-sintoma positiboak ikusten dira, adibidez, Bilboko Udal Bandan. Banda horiek zuzendari-irudia, jardueren prestaketa eta aurkezpen publikoa egiteko moduak aldatzen ari dira, eta, horri esker, publiko leial eta gogotsua berreskuratzen ari dira. Arlo horretan,

kudeaketa eta zuzendaritza profesionalizatzeko beharra dago, eta musikari amateurrez osatutako bandek Estatu mailan (eta gero eta gehiago herrian) oso lehiakorra den ingurunean bizirautea zaila dela jabetu behar dugu.

- Prestakuntza profesionaleko orkestra- eta koru-zuzendari gutxi. Gehienak noizbehinka aritzen dira, eta jarduera amateurretan; ez daude prestatuta erronka handiak beregain hartzeko. Egoera hori gainditzeko, mentalitatea aldatu behar da, eta badirudi hori ezinezkoa dela egungo kondizioetan.

- Behar adina konpositore akademiko, baina profesionalizatzeari dagokionez desorientatuta eta publikoari dagokionez zehaztu gabe. Gehienek beste baliabide artistiko batzuekin kolaboratzea mespretxatzen dute, esaterako antzerkiarekin, zinemarekin edo telebistarekin, eta "musika puru"an aritzea nahiago dute. Horrek, ordea, ondorio ekonomiko gutxi ditu, eta horregatik irakaskuntzan aritzen dira nagusiki, gaitz txikiago gisa (ikus gorago). Beren aukera estilistikoak gizartearen eskaerekin lotura gutxi duen bilakaeraren teoriaren arabekoak dira, eta beren jarduerak finantziario publikoan zorra sortzen du.
- Opera Lagunen Bilboko Elkarte (OLBE). Pribatua da, baina diru-laguntza publiko handia jasotzen du. Urtero jaialdi bat antolatzen du, eta Euskalduna Jauregian egiten denetik, ekoizpenak erosten ditu. Horri esker, bere errepertorioa berriro ahal izan du, eta lehengo zerbitzuekin konparatuz, kalitate hobeko zerbitzuak eskaintzen ditu; arrakasta handikoak dira. Lehen aipatutako beste erakunde batzuetan bezala, profesionaltasun-falta du kudeaketan, baita musika-erakunde batean lanean aritzeko administrari prestatuen falta ere, bazkideek berek kudeatzen baitute elkarte; Kantuan amateurak dira, eta eguneroko bizimoduan beste lanbide batzuk dituzte.

Elkarte horri ematen zaion diru-laguntza publikoak ez du nahiko kontraprestazio eskaintzen, esaterako, bazkide ez direnak bere funtzioetara joatea kondizio egokietan edo ikertzaileei beren ondare historikoa irekitzea.

- Kontzertu-elkarte pribatuak. Horietan ezagunena Bilboko Elkarte Filarmonikoa da, 1896an sortua. Mundu mailan kalitate paregabea duten ospe handiko ganbera-kontzertuak eskaintzen ditu, bazkideentzat soilik. Lokal propioa du eta guztiz autonomoa da, ez baitu diru-laguntza publikorik jasotzen. Bere kudeaketaz bazkideen batzorde bat arduratzen da, eta kontrakoa dioten hiri-legenda batzuk egon arren, bere bideragarritasun ekonomikoa ezin da beste erakunde batzuetarako eredu gisa erabili; izan ere, erakunde pribatua denez, ez dira ezagutzen bere kideak, ez egile-eskubideengatik ordainketen betetze-maila, ezta bere ondare historikoaren kontserbazio-egoera ere.
- Behar adina grabaketa-estudio, teknikari eta kudeaketarako langile, baina musika herrikoia alorrean soilik. Gehienek prestakuntza autodidakta izan dute, eta horregatik, beraien artean enpirismoa da nagusi. Horrek oso funtzionalak izateko aukera ematen die, baina beste estilo edo teknika batzuk garatzeko aukera mugatzen du. Adibide bat ematearren, EAEn musika klasikoa grabatzeko gai den teknikaririk eta horretarako estudio egokirik ez dagoela gogoratu behar dugu.
- Musika-argitaletxe gutxi. Jarduera mugatua dute, eta beste jarduera batzuekin batera gauzatu behar dute. Kontuan hartu behar da Kultura

Sailak diru-laguntza emateko duen politikak euskarazko testua duten argitalpenei bakarrik eragiten diela, eta beraz, musika instrumentala kanpoan gelditzen dela, ez baitu testurik. Erakunde ofizialek (udalak, diputazioak, unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza) noizbehinka bakarrik argitaratzen dute, eta tamalez, egiten dutenean ez dute banaketarik izaten.

Musika hedatzeko, musikaren argitalpena funtsezko faktorea dela adierazi behar da. Horrez gain, testu alfabetikoa duen liburuarekin konparatuz, teknikoki oso jarduera konplexu eta desberdina da. Arlo horrek duen laguntza faltak aipatu ditugun beste erakunde batzuek jasotzen duten diru-laguntza handiarekin kontrastatzen du, ez baitira hain funtzionalak eta epe ertainera eta luzera eragin gutxiago baitute.

- Musika kondizio ez oso errealistetan eta arreta falta handiaz kontuan hartzen duen hezkuntza-sistema. Hezkuntzan, oro har, musika-prestakuntzari dagokionez, presentzia oso txikia du, eta kasu askotan, aurrez behar adinako prestakuntza jaso ez duten pertsonen esku uzten da. Musikaren irakaskuntza espezializatuari dagokionez, berriz (txosten honetan lehen aipatu den bezala), lege-araudi berriak musika-eskoletan eta kontserbatorioetan banatutako sistema bikoitza sartzen du. Kontserbatorioek aurreko tradizioaren pisua dute, lan-talde zaharkituak eta birziklatze gutxi. Bestalde, organigraman kokaleku desegokia dute eta hezkuntza-administrazioaren aldetik arreta gutxi jasotzen dute tradizioz. Musika-eskolek izaera dibulgatzaileko musika-hezkuntza eta prestakuntza profesionalerako hezkuntza eskaintzen dute, baina lehen aipatutako penalizazioak ditu: finantziario eskasa, ratio eta denborazkotasun gutxi eta udalarekiko mendekotasun ez oso funtzionala.

Musikene (2001) fundazioaren bidez, goi-mailetan soilik egin dira aldaketa positibo batzuk, baina ekintza horiek presaka egin direnez, erakundeak aho batez baloratutako lorpenekin batera, itzal batzuk ere baditu, besteak beste, proiektu propio baten falta, lege-esparru zorrotzegia eta instalazio egokien falta.

Soinuarekin zuzenean lotuta ez dauden musika-lanbideetarako (kudeaketa, ondarea, dibulgazioa, komunikazioa, animazioa, ikerketa) prestatzeari dagokionez, horren bideratzea unibertsitateari dagokiola esan behar da. Dena den, EAEko unibertsitate-sistemak bizkarra eman izan dio beti musikari, eta ez du ulertu, beste sektore batzuk bezala, hau ere sektore produktiboa dela. Ikasketa-mota hori barne hartu beharrean (ikasle potentzialen eta enpresa-sektorearen aldetik kontuan hartzeko eskaera eduki arren) unibertsitate-hedapena duten jarduerak sustatzea erabaki da, eredu paternalista eta ez-profesional baten arabera. Eta hori guztia, kontrako norabideko eskaera eta txosten ugari egon arren.

Horrek txosten honen hainbat ataletan adierazitakoa erakusten du: intrusismoa eta euskal musikaren estamentu administratiboan, bitartekoen eta kudeatzaileen profesionaltasun falta, eta musika-munduaren desegituratzea.

- Ikerketa eskasa, EAEko unibertsitateetan prestakuntza-biderik ez egotearen ondorioz. Hortik dator sektoreko musika-ondarearen profesionalen, kritikaren, dibulgazioaren eta abarren falta. Gabezia horrek musika-mundua etorkizunerako zuzendari-irudirik gabe, helburu arrazoiturik gabe eta ideiarik gabe uzten du. Halaber, horixe da ikerketa- eta kontzertu-programetan euskal musika ez agertzearen arrazoia, oraindik ikertu, kritikatu, argitaratu eta banatu gabe baitago.
- Hainbat publiko hainbat musika-motarentzat. Orkestratako publikoaren ehunekoa Estatuko batezbestekoa baino altuagoa da, eta ohikoa eta oso leiala da. Batez besteko adina altua da, eta horrek epe ertainean

belaunaldi hori ordezteko arazoa egongo dela erakusten du. Horrek erakunde horien komunikazioko, dibulgazioko eta harreman publikoko jarduerak profesionalizatu behar direla adierazten du, ikasleei gaur egun eskaintzen diren "kontzertu pedagogiko"ez gain beste zerbait eskaintzeko, izan ere, horien eraginkortasuna (gaur egun egiten diren bezala) oso mugatu da. Publiko berria erakartzea premia handiko zeregin garrantzitsua da, eta modu profesionalean egin behar da.

Operako publikoa gorantz doa, eta EA Erekin muga egiten duten lurraldeetako pertsonak ere hor sartzen dira. Publiko hori ere adinekoa eta oso leiala da, baina gazteen artean interes handiagoa du, saioak egiten diren ikuste-elementu eta ingurune exotikoaren ondorioz.

Musika gaztearen publikoak osasun ona du, musika-kontsumitzaile gisa duen portaerak profesionalen biziraupenerako bide oso lagungarriei jarraitzen ez dien arren. Dakigun bezala, pirateoa eta Internet funtzionalki gainerakoak baino hobeto egituratuta eta antolatuta dagoen musika-arloa egonkortzeko aukerak gutxitzen ari da.

Baliabide horietan oinarritutako musika-produktuen hedapenak hainbat aukera eskaintzen ditu, nahiz eta horien artean ere desadostasunak egon:

- Antzerki-sare egokia: orain dela gutxi sortutako edo birmoldatutako erakundeak dira nagusiki, finantziario publikoak dutenak eta publiko jendetsuari zuzenduak. Sarearen kalitate onak profesionaltasun falta duten langileekin eta zuzendaritzako irudien intrusismoarekin kontrastatzen du, eta horrek haren errendimendua kaltetzen du. Eraikin handi horien eta horiek bete ditzaketen sormen lokalaren arteko konexio falta nabarmena da, eta horrek eraikin gehienak ekoizpenak erostera bultzatzen ditu.
- Emanaldi-lokal txiki ugari. Horietan musika ostalaritzarekin batera bizi da. Irregularki banatuta daude eta banaketa hori ez da planifikatu, baina haren publikoa leiala da (emanaldietan urria izan arren), eta emanaldi horiek antolatzen jarraitzea ahalbidetzen du. Ekimen pribatuaren mende daude, eta laguntza ofizial gutxi jasotzen dute, oinarritzko musika-jarduerak eta musikaren sektore profesionalaren ehuna finkatzen laguntzen duten arren. Gisa horretako lokaletan arreta gehiago jartzea komeni da.
- Bi orkestren denboraldi finkoak, OLBEren opera-jaialdia, ganbera-kontzertuen hainbat ziklo, banda eta koruen hainbat emanaldi eta musika klasikoaren alorrean emanaldi puntualak.

- Musika gaztearen alorrean emanaldi puntualak, urtaroaren arabera egiten direnak (udan, batik bat). Deialdia egiteko duten gaitasunagatik eta lokal txikietako emanaldiengatik nabarmentzen dira.
- Lehiaketa garrantzitsuak: Tolosako abesbatzen lehiaketa, Bilboko nazioarteko kantu-lehiaketa, etab. Hedabideen presentzia handia dute eta mundu osoan hedatzen dira. Horien maila altuak herritarrek gogotsu baina pasiboki parte hartzea eragiten du.
- Jaialdi garrantzitsuak, bereziki, jazzekoak eta Donostiako musika hamabostaldia. Nazioarteko mailako programazio eklektikoa dute. Errenteriako Musikaste jaialdia, Eresbilek antolatua. Euskal musikari buruzkoa da, eta Estatu osoan ematen da irrati bidez. Horrez gain, askotariko kalitateko beste jaialdi batzuk ere badaude. Horien artean BBK-k antolatutako musika garaikidearen jaialdia eta Gasteizko antzinako musika-astea azpimarra daitezke, beren izaera espezializatuagatik. Ganbera-musikaren jaialdiren bat falta da, eta jaialdiei (puntualak) lehentasuna denboraldien (jarraituak) arabera eman behar zaien hausnartu behar da.

- Aldizkari espezializatuak: Txistulari, Dantzariak, Cuadernos de Música (Eusko Ikaskuntzarenak), Cuadernos de Folklore (íd), gorabehera askokohainbat fanzine gazteentzat. Garai bateko Euskor aldizkariaren antzera gaurkotasuneko musika-aldizkari baten premia dago publikoa biltzeko eta emanaldiak koordinatzeko baliabide gisa. Diseinu aldetik ez litzateke oso konplikatu izango; musikan interesatuta dauden sektore guztiak beren artean komunikatzeko eta erlazionatzeko baliabide funtzionala izango litzateke.
- Eraldatzen ari den musika-salerosketa, aldaketa teknologikoen eta musikaren soziabilitate-formen bilakaeraren ondorioz.
- Komunikabide orokorren inhibizioa eta adostasun eza: musikari buruzko kalitatezko informazioa eta musika-arlo guztiak kontuan hartzen dituen falta da hedabide orokorretan, hau da, egunkarietan, kultura-aldizkarietan, etab. Horietan (normalean egunkarietan) agertzen den musikari buruzko kritika ez da oso profesionala izaten, eta musika klasikoari buruzkoa soilik izaten da. Gainerako musikek ez dute kritikaren arretarik jasotzen, eta haiei buruz idazten edo hedatzen denak izaera berri-emaile eta kazetaritza-izaera nabarmena izaten du, publizitarioa ez denean.

EITBren jarduerak beste atal bat merezi du, izan ere, musika klasikoa aisialdi-jardueretako elementu berri-emaile gisa besterik ez du sartzen programazioan, eta gainerako musikak elementu folkloriko gisa (ikuspegi erromantikotik) edo gazteen munduarekin lotutako dibertsio gisa erakusten ditu. Egokia izango litzateke EITBk musika-eduki espezifikoko programazioren bat irekitzeko aukera aztertzea, baita ekoizpen propioko programak egitekoa ere.

Hori dela eta, maila handiagoko kritika sustatzeko beharra azertu beharko litzateke, sortzailearen eta publikoaren artean artekari gisa aritzeko gai dena, publikoaren parte-hartzea motibatuzeko gai dena eta herritarren eta kultura-teknikariaren artean oinarritutako iritzia sortzeko gai dena. Gaur egun, kritika-jardueren falta musikaren ondare-kontzepzioak gehiegi baloratzea eragiten ari da, eta horrek, aldi berean, lehendik dauden jardueretan kalitatezko elementuak ez diskriminatzea eta kantitateari, kalitatearen aldean, lehentasuna ematea dakar.

BALORAZIOA

Laburbilduz, euskal musika-sektorearen banaketa ez da orekatua:

- Batetik, interpretatzaile asko eta onak daude, behar adina konpositore daude, ondare interesgarria dago, material dokumentalak daude, emanaldi-lokalak, jaialdiak eta denboraldi eta lehiaketa azpimarragarriak daude eta musikaren presentzia handia dago herritarren artean.
- Bestetik, abiapuntu horiek ez dute gauzatze ezin hobea lortzen arlo batzuetako profesionaltasun-faltagatik, beste arlo batzuetako arreta-faltagatik, musika- eta publiko-mota batzuen polarizazioagatik eta oro har plangintza txikia izateagatik.

Aukeren azpitik dauden emaitza horiek bi arrazoi nagusi hauengatik direla uste dugu:

- Musika ez da sektore produktibotzat hartzen, eragile guztiak koordinatzea beharrezkoa den sektoretzat, publikotik hasi eta interpretatzaile, bitarteko eta enpresaburuetatik igarota, eta
- Sektore horren arlorik egituratzaileenei dagokien esku-hartze profesionalean hutsune larria dago: hedabideak eta dibulgazioa, musikako kritikariak, argitaratzaileak, ikertzaileak, kudeatzaileak, liburutegietako musika-teknikariak, dokumentalistak, musika-ondarean espezialistak, etab.

JARDUERA-JARRAIBIDEAK

Azterketa hau egin ondoren eman daitezkeen gomendioak hauek dira gure iritziz:

- ✓ Musika-jardueraren maila guztietan profesionalen esku-hartzea eskatzea, beheko mailak eta kudeaketa-mailak barne.

- ✓ Zeregin "isil"etan aritzen diren lan-taldean eta langileen goranzko birdimentsionatzea bultzatzea musikaren munduan: kudeaketa, ondarea, komunikazioa, kritika, ikerketa, etab.

- ✓ Sail honen ekintzak Hezkuntza Sailaren ekintzekin koordinatzea, ekimenak kondizio errealistetan berrezartzeko.

- ✓ Gure "mapa"n irudi ona ematen ez zaien musikako lanbideetarako prestakuntza-bideak sortzea sustatzea, bereziki, bitartekotza kulturalarekin eta ondarearekin lotutakoak (musikologia). Ikerketa sustatzea.

- ✓ Musikaren euskal museoa eratzeko beharra nabarmentzea, Eresbilen ezinbestean ez dauden jatorrizko aleak kontserbatzeko eta hedatzeko eta musikaren ondare materiala identifikatzeko eta tratatzeko.

- ✓ Liburutegi orokorretan musikaren atala hobetzea, eta Hezkuntza Sailarekin liburutegien egoera eta bertako langileena koordinatzea musikako irakaskuntza zentroetan.

- ✓ Dibulgazio-politikak erabakitzea eta horien profesionalizatzea benetan zaintzea.

- ✓ Musikari buruzko literatura-sormena bultzatzea euskal musikaren plataforma dibulgetzaile eta kritiko gisa.

- ✓ Pirateriari aurre egitea eta musikarien irudia maila eta lanbide guztietan azpimarratzea, bereziki musikari iaioena.

- ✓ Musika-jarduera tradizionalen aurkezpenean (esaterako orkestrak eta bandak) jardute berritzaileak sustatzea, dagoeneko sendotuta baina gutxi ustiatuta dagoen giza kapitala eta kapital instituzionala aprobetxatzeko.

- ✓ Musikan jarduten diren erakunde guztiei bidezko moduan laguntzea, batzuen alde egitean besteei kalterik eragin gabe, organigraman duten mendekotasun-moduaren ondorioz.

- ✓ Publiko orokorrari irekitzeko eskatzea edo zerbitzu batzuk emateko eskatzea, sail honek babesten dituen denboraldi eta jaialdietan ohikoa ez den eta bazkide ez den publikoaren presentzia izateko.

- ✓ Aldizkako argitalpen berri-emailea eta dibulgatzailea argitaratzea, lehendik dauden musika-jarduerak koordinatzeko.

- ✓ Musika-argitaratzaileei diru-laguntzak ematea testu alfabetikoko argitaratzaileei ematen zaizkien baldintza berdinetan.

- ✓ Musika-emanaldiak dituzten lokal txikiei laguntzea.